

KANAL ETIKOA ETA SALAKETAK KUDEATZEKO PROZEDURA ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

SERVICIOS DE TXINGUDI – TXINGUDIKO
ZERBITZUAK SA

2023ko maiatza

ALDAKETEN KONTROLA

Edizioa	Aldatutako atalak	Aldaketaren deskribapena	Data
1. bertsioa	Jatorrizko dokumentua	Jatorrizko dokumentua	2023ko maiatzak 30

EDUKIA

- 1. ARAUAREN HELBURUA ETA IRISMENA**
- 2. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA**
- 3. APLIKAZIO MATERIALAREN EREMUA**
- 4. SALATZEKO BETEBEHARRA**
- 5. SALAKETA FALTSUAK EDO FEDE TXARREKOAK**
- 6. KANAL ETIKOAZ ARDURATZEN DEN ORGANOA**
- 7. SALATZAILEAREN ESKUBIDEAK, TXINGUDIKO ZERBITZUAK SA-REN KANAL ETIKOAREN BIDEZ EGINDAKO SALAKETEKIN LOTURIK**
- 8. TXINGUDIKO ZERBITZUAK SA-REN KANAL ETIKOAREN BIDEZ SALATUTAKO PERTSONAREN ESKUBIDEAK**
- 9. SALAKETAK KUDEATZEKO PROZEDURA**
- 10. ERRUKITASUN PROGRAMA**
- 11. KONTSERBAZIOA, SEGURTASUNA ETA ESTATISTIKA**
- 12. DATU PERTSONALAK BABESTEA**
- 13. ARAUA INDARREAN JARTZEA, INDARRALDIA ETA EGUNERATZEA**

1. ARAUAREN HELBURUA ETA IRISMENA

Arau honen xedea da Servicios de Txingudi – Txingudiko Zerbitzuak SAn Kanaleko Etikoaren (aurrerantzean, Txingudiko Zerbitzuak SA edo erakundea) funtzionamendua arautzea, bai eta haren bidez jasotzen diren salaketak kudeatzeko prozedura erregulatzea ere. Horretarako, printzipio hauek hartuko dira kontuan: irisgarritasuna, fede ona, errepresaliak debekatzea, konfidentzialtasuna, erreserba, objektibotasuna eta inpartzialtasuna, gardentasuna, eraginkortasuna eta lehenetsia, bakartasuna eta sarbide eskubidea. Printzipio horiek guztiak araua erregulatzen duen politikan daude ezarrita, eta bat datoz indarrean dauden legeria, araudi eta gomendioekin.

Era berean, arau horrek ezartzen ditu eskubideen, betebeharren, bermeen, sarbide baldintzen eta erabiltzaileek baliatzeko baldintzen alorreko araubidea ere.

Txingudiko Zerbitzuak SAn Kanaleko Etikoa Txingudiko Zerbitzuak SAn *Osotasun eskuliburuaren* funtsezko elementuetako bat da, eta Zigor Kodearen 31 bis 5 artikuluan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2016 Zirkularrean (pertsona juridikoen erantzukizun penalari buruzkoa, 1/2015 Lege Organikoak ezarritako Zigor Kodearen erreformaren arabera) eta otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 7. artikuluan (arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena) aurreikusitakoaren arabera ezartzen da.

Txingudiko Zerbitzuak SA Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan dirulaguntzaren edo laguntzaren baten onuradun izanez gero, Kanaleko Etikoa honek, aipatutako otsailaren 20ko 2/2023 Legeak eskaturiko bakartasunarekin bat etorritik, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalaren *iruzurraren aurkako neurriak aplikatzeko gidan* iruzurraren aurkako planetarako eskatzen den kanaleko etikoa integratuko du Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzean (gida hori irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua garatuz egina da, zeinaren bidez Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratu da).

2. APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA

Txingudiko Zerbitzuak SAn Kanaleko Etikoa Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztien eskura jartzen da (langileak, arduradunak, zuzendari-gerentea, Administrazio Kontseiluko kideak eta Akziodunen Batzar Nagusiko kideak), bai eta Txingudiko Zerbitzuak SAri buruzko informazioa lortzen duten pertsonen esku ere, hala nola autonomoen, kontratisten, azpikontratisten, hornitzaileen eta, oro har, lan eta lanbide esparruaren barruan, Txingudiko Zerbitzuak SAn interes taldeetako kideen esku ere, zeinak arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 3. artikuluan baitaude jasota.

3. APLIKAZIO MATERIALAREN EREMUA

Aurreko atalean aipatutako pertsonak legeria orokorraren edo Txingudiko Zerbitzuak Saren *Osotasun eskuliburua* osatzen duten barne arauen (Kode Etikoa, politikak, arauak, protokoloak, eta abar) aurkako edozein ekintza edo ez-egite salatu ahal izango dute, Kanal Etikoaren bidez.

Halaber, Kanal Etikoa baliatuz, pertsona horiek Txingudiko Zerbitzuak Saren *Osotasun eskuliburuarekin* lotuta sor dakizkiekeen zalantzei buruzko kontsultak egin ahal izango dituzte. Betearazpen eta Osotasun Organoak zuzenean erantzun ditu ahalik eta lasterren, arau honetan salaketak kudeatzeko aurreikusitako prozedura aplikatu gabe.

Salatzaileari salatu beharreko jokabide batzuk identifikatzen laguntzeko, jokabideen zerrenda hau egiten da (zerrenda irekia da, ez itxia), zeinean bi atal eransten baitira, “Beste delitu batzuk” eta “Beste zenbait”, baldin eta salatutako ekintzak edo ez-egiteak ez badaude banakatuta zerrenda horretan:

1) Etika eta Jokabide Kodearen edo Txingudiko Zerbitzuak Saren *Osotasun eskuliburua* osatzen duten gainerako arauen aurkako praktika

Etika eta Jokabide Kodean edo Txingudiko Zerbitzuak Saren *Osotasun eskuliburua* osatzen duten gainerako arauetan jasotako jokabide printzipio eta arauen aurka dagoen edozein jokabide.

2) Funtzionario eroskeriaren delitua edo influentzia trafikoa

Funtzionarioei edo agintariei opari edo konpentsazio ekonomiko bat eskaintzea edo ematea, erakundearentzat zilegi edo legez kontrakoa den onura lortzeko, edo haren gainean eragina izatea, harreman pertsonal batez baliatuz, berarentzat edo erakundearentzat onura ekonomikoa ekar dezakeen ebazpen bat lortzeko.

3) Ustelkeria delitua negozioetan

Bere kabuz edo bitarteko pertsona baten bidez, merkataritza enpresa edo sozietate bateko zuzendariak, administratzaileak, enpleguak edo kolaboratzaileak justifikatu gabeko edozein motatako onura edo abantaila jaso, eskatu edo onartzen badu, bere mesedetan edo hirugarren baten mesedetan, eta, horren truke, beste bati bidegabe mesede egiten badio salgaiak eskuratzean edo saltzean, edo zerbitzuak kontratatzean edo merkataritzako harremanetan. Bestalde, produktuak erosteko edo saltzeko promesa egitea edo onura ematea hirugarren bati merkataritza harremanetan.

4) Iruzur delituak —dirulaguntzetan, EBko aurrekontu orokorretan, Gizarte Segurantzaren aurka eta Espainiako edo EBko Ogasun Publikoaren aurka—

Dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzea, baldin eta horretarako dirulaguntza horiek emateko eskatzen diren baldintzak faltsutu behar badituzte, laguntzak ematea eragotzi duten baldintzak ezkututzen badituzte, eta EBko aurrekontu orokorre, Gizarte Segurantzari edo Espainiako edo EBko Ogasun Publikoari iruzur egin behar badie.

5) Beste delitu batzuk

Esate baterako, sekretuak deskubritzea eta jakinaraztea eta bortxatze informatikoa, alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa, langileen eskubideen aurkako delituak, baliabide naturalen eta ingurumenaren aurkako delituak, jabetza intelektualaren edo industrialaren aurkako delituak, hedapen delituak, enpresa sekretu bat ezagutaraztea edo lagatzea, eta abar.

6) Europar Batasuneko zuzenbidearen aurkako arau haustek izan daitezkeen ekintzak edo ez-egiteak

Baldin eta: 1) Batasunaren zuzenbidearen urraketei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren eranskinean zerrendatutako EBko egintzen aplikazio eremuan sartzen badira; 2) EBren finantza interesei eragiten badiete; 3) Barne merkatuan eragiten badute, lehiaren arloko EBko arauen eta estatuek emandako laguntzen alorreko arau haustek barne.

7) Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko ez-betetzeak eta arriskuak, laneko jazarpena barne

Lankide, buru edo konpainiaren beraren jarrera axolagabea, edozein pertsona arriskuan jar dezakeena —dela erakundeko enplegatu bat, dela bezeroaren enplegatu bat, dela loturarik gabeko hirugarren batena—. Era berean, ukituriko langileari beldurra, izua, mespretxua edo bere lanarekiko gogogabetasuna eragitera bideratutako jazarleen ekintza oro.

8) Sexu jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena

Pertsona baten duintasuna iraintzea asmo edo ondorio duen izaera sexualeko portaera berbal nahiz fisiko oro, bereziki testuingurua larderiakoa, iraingarria edo umiliagarria bada. Pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, xede nahiz ondore izateagatik pertsonaren duintasunaren aurka egitea, eta inguru larderiakoa, iraingarria edo umiliagarria sortzea.

9) Tratu eta aukera berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidearen urraketak

Generoa, arraza, sexu orientazioa, erlijio sinesmenak, iritzi politikoak, nazionalitatea, gizarte jatorria, desgaitasuna edo beste edozein egoera pertsonal, fisiko edo sozial dela-eta bereizkeria eragiten duen edozein ekintza edo ez-egite.

10) Administrazioako arau hauste astun edo oso astun izan daitezkeen beste ekintza eta ez-egite batzuk.

Legeriak arau hauste administratibo astun edo oso astun gisa tipifikatutako beste ekintza edo ez-egite batzuk.

11) Beste zenbait

Txingudiko Zerbitzuak SAri eragin diezaiokeen eta aurreko motetan jasota ez dagoen beste edozein komunikazio mota.

4. SALATZEKO BETEBEHARRA

Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztiek Betearazpen eta Osotasun Organoaren aurrean salatu behar dituzte, Kanal Etikoaren bidez, arau hausteak edo ez-betetzeak gertatzeko izan daitezkeen arriskuak. Horretarako, Kanal Etikoa erregulatzen duen arauan aurreikusitako edozein modu baliatu ahalko dute, kaleratzeko edo beste edozein errepresalia jasateko beldurrik gabe, eta konfidentzialtasun osoz tratatuko dela ziurtatuta.

Era berean, kontratistek, hornitzaileek, herritarrek, interes taldeetako kideek edo Txingudiko Zerbitzuak SATik kanpoko sozietateek ere salatu ahal izango dute edozein irregulartasun.

Ez da nahitaezkoa salatzailea identifikatzea, eta modu erabat anonimoan formalizatu ahal izango du salaketa. Hala ere, Txingudiko Zerbitzuak SAK, ahal den guztietan, bere burua identifikatzeko gomendioa eta gonbita egiten dio salatzaileari; hala, Betearazpen eta Osotasun Organoak aukera izango du informatzailea errepresalia posibleetatik modu eraginkorrean babesteko eta ikerketa eta ebidentzien bilketa arintzeko.

5. SALAKETA FALTSUAK EDO FEDE TXARREKOAK

Txingudiko Zerbitzuak SAren kanal etikoa modu arduratsu eta egokian erabili behar da. Egitate faltsuak jarrera maltzur eta moralki desonestarekin komunikatzea Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonen arteko harremanetan nagusi izan behar duen fede onaren kontrako arau haustea da, eta diziiplina neurriak har daitezke, Enpresa Hitzarmenean eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

Dagokion azterketa egin ondoren, ondoriozta badaiteke salatutako gertakariak nabarmen faltsuak direla eta salaketa jarrera maltzurrez eta fede txarrez aurkeztu dela:

- 1) Salaketa artxibatu egingo da, espediente artxibatzeran eraman duten arrazoiak dokumentatuko dira, eta amaitu egingo da ikerketa lana.
- 2) Inguruabar hori Giza Baliabideen Zuzendaritzari helaraziko zaio, Betearazpen eta Osotasun Organoarekin koordinatuta diziiplina neurriak proposa daitezen,

Enpresa Hitzarmenean eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

- 3) Zehapen proposamena idatziz jakinaraziko zaio zuzendari-gerenteari edo, kasuaren arabera, Administrazio Kontseiluari, eta haiek erabakiko dute fedetxarreko salatzaileri aplikatu beharreko diziiplina ekintza.

6. KANAL ETIKOAZ ARDURATZEN DEN ORGANOA

Txingudiko Zerbitzuak SAre Betearazpen eta Osotasun Organoa izango da Kanal Etikoaren organo arduraduna.

Arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legeak pertsona fisiko bat sistemaren edo kanalaren arduradun izendatzea eskatzen du. Hori dela eta, Betearazpen eta Osotasun Organoa batzorde gisa eratuz gero, hark izendatuko du arduraduna bere kideen artean. Aldiz, pertsona bakarreko Betearazpen eta Osotasun Organo bat aukeratzen badu Betearazpen eta Osotasuneko arduradun gisa, ulertuko da arduradun horrek zuzenean hartzen duela bere gain *sistemaren arduradun* izateko izendapena, aipatutako legean aurreikusitako ondorioetarako. Nolanahi ere, barne kanalak une bakoitzean kanalaren ardura duen pertsona fisikoa identifikatuko du, salaketa kanal horren bidez aurkeztu den unean interes gatazkaren arriskua behar bezala kudeatu ahal izateko.

Sistemaren arduradunak beteko ditu Kanal Etikoaren kudeatzailearen eta hartzailearen funtzioak. Era berean, ikerketa fasea amaitu ondoren, arlo horretan aditua den ikertzaile talde baten ardurapean egongo da beti, eta harekin batera parte hartuko du ipini beharreko neurrien proposamena zehazten, zeina ondorioen txostenean jaso beharko baita.

Txingudiko Zerbitzuak SAn sexu jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloaren aplikazio eremuaren barruan sartzen diren ekintzen eta ez-egiteen kasuan, salaketa onartu ondoren, sistemaren arduradunak Aholkularitza Konfidentzialeko kideak gaituko ditu Kanal Etikoa kudeatzeko softwarean, kasuaren arabera dagokion espediente zehatzean, haren bidez iker daitezen eta salaketa ikertzeko faseak eskatzen dituen erabaki guztiak har ditzaten, harik eta prozedura amaitu arte, protokolo horretan xedatutakoaren arabera. Horretarako, Betearazpen eta Osotasun Organoaren laguntza eskatu ahal izango du, hala nahi izanez gero.

Sistemaren arduradunak eta, kasuaren arabera, Betearazpen eta Osotasun Organoko gainerako kideek eta kasuan kasuko gaiaren arabeko espezialistek —salaketa onartu ondorengo ikerketak egiteko izendatu badira— Kanal Etikoaren politikan ezarritako printzipioak eta arau honetan jasotako aurreikuspenak errespetatu beharko dituzte, eta, horretaz gainera, interes gatazkarik gabe jardun beharko dute salaketak

kudeatzeko prozeduran, behar den arretarekin eta bizkortasun, proportzionaltasun, legezotasun eta justizia printzipioekin bat etorritik.

7. SALATZAILEAREN ESKUBIDEAK, TXINGUDIKO ZERBITZUAK SA-REN KANAL ETIKOAREN BIDEZ EGINDAKO SALAKETEKIN LOTURIK

Salaketaren bizi zikloan, Txingudiko Zerbitzuak SAK eskubide hauek bermatuko dizkio salatzaileari:

a) Ikerketan zehar babesaren izateko eskubidea

Txingudiko Zerbitzuak SAK behar bezalako babesaren emango die arau honetan xedatutakoaren arabera salaketa bat egiten duten pertsona guztiei.

Salatzaileak salaketaren edukia argitaratzen badu, babes neurriez baliatu ahal izango da, baldin eta salaketa Kanal Etikoaren bidez eta ezarritako epeetan eta neurriei jarraikiz egin badu.

Salatzailea babestu egingo da, orobat, salaketaren edukia publiko egiten bada, dela interes publikorako ageriko arrisku bat nabari delako —hala nola larrialdi egoera bat edo kalte itzulezinak izateko arriskua—, dela kanpoko salaketa bat egiten bada errepresalia arriskuak nabari direlako edo kasuaren inguruabar zehatzengatik salaketari tratamendu eraginkorra emateko aukera txikiak daudelako —hala nola litekeena delako frogak ezkutatzea edo suntsitzea, edo Txingudiko Zerbitzuak SAK arau haustearen egilearekin bat egiten duelako edo arau haustean inplikaturik dagoelako—.

b) Errepresaliak debekatzea

Inola ere ez da hartuko salatzailearen aurkako errepresaliarik, nahiz eta horren ondoriozko ikerketen emaitzak egiaztatu ez dela bete Kode Etikoa edo aplikatu beharreko araudia, betiere ez badu jokatu fede txarrez. Horrek esan nahi du zigortu egin beharko dela edozein errepresaliaren egilea.

c) Informazioa jasotzeko eskubidea

Salatzaileari idatziz jakinaraziko zaio, salaketa aztertu ondoren, ea egokitzen jotzen den salaketa horren inguruabarrak aztertzea.

Bestalde, ikerketa amaitu ondoren, salatzaileari aurreikusitako jarraipen neurriei buruzko informazioa eman beharko zaio; esaterako, agintari eskudun bati bidaltzeari buruzkoa, bai eta ikerketen emaitzari buruzkoa ere, eta salatutako pertsonari azaldu beharko zaio zergatik ipini zaizkion diziplina neurriak edo ekintzak.

Kanal Etikoa kudeatzeko softwarearen bidez, salatzaileak bere salaketaren egoeraren berri eduki ahal izango du etengabe, kudeaketa faseen arabera, eta, beharrezkoa izanez gero, talde kudeatzailearekin harremanetan jarri ahal izango da sarbidean gaitutako txataren bidez —horretarako, bere erabiltzailea eta pasahitza izango ditu—.

d) Aukeratzeko eskubidea

Salatzaileak egokitzen jotzen duen salaketa bidea aukeratu ahal izango du, eta kanpoko kanaletara jo ahal izango du (agintari eskudunak). Ezingo da behartu salatzailea bide zehatz bat erabiltzera, batez ere kontuan hartuta salatutako pertsona izan daitekeela salatzailearen nagusia, eta salatuak eskura dezakeela salaketa.

e) Informazio mugatua izateko eskubidea

Salatzaileari, salaketa egiteko prozesuan, ezin izango zaio eskatu salaketa izapidetzeko behar-beharrezko datuez bestelakorik, eta, ondoren, ezin izango dira eskatu edo gorde ikerketarako behar-beharrezkoak ez diren datuak.

Salatzaileak ematen duen informazioa ezin izango da erabili ikerketaz bestelako helburuetarako. Aurkeztutako salaketak industriako edo merkataritzako sekretuari buruzko informazioa edo Txingudiko Zerbitzuak SAreneko edo inplikaturik diren hirugarrenen merkataritza, ekonomia, estrategia edo segurtasun interesei eragin diezaikekeen beste informazio bat jasotzen badu, horiek salaketa ikertzeko prozesuan behar-beharrezkoa denerako erabili beharko dira, eta ezin izango dira jakinarazi edo partekatu salaketa ez den beste helburu batzuetarako.

Txingudiko Zerbitzuak SAreneko Kanal Etikoaren bidez salaketa aurkeztearen ondorioz tratatutako datu pertsonalak honako arau hauen arabera tratatuko dira: Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorra, Datuak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, arau hausteei eta ustelkeriaren aurka borrokatzeari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legea, eta indarrean dagoen gainerako araudi aplikagarria.

Berehala ezabatu beharko da salaketa bat ikertzeko gehiegizkoa edo desegokia den edozein datu, bai eta ustekabeen jasotako edozein datu ere.

f) Anonimotasunerako eskubidea

Kanal Etikoaren bidez salaketa bat aurkezten duen salatzaileak bere nortasunaren inguruko anonimotasuna gorde ahal izango du, eta prozesuan

zehar bermatu egin beharko da hori. Salatzaileak aukeran izango du hura identifikatzeko datuak sartzea, prestatutako salaketa formularioaren bidez.

g) Konfidentziasunerako eskubidea

Salatzailearen identitatea konfidentziala izango da, eta haren berariazko baimenik gabe ezin izango zaio jakinarazi salaketak jasotzeko eta kudeatzeko eskumenik ez duen inori; salbuespen izango dira EBko zuzenbideak edo Espainiako araudiak ezartzen dituen kasuak, agintariek egindako ikerketekin edo prozesu judizialekin loturik.

h) Erantzuna arrazoizko epean jasotzeko eskubidea

Salatzaileak salaketa jaso izanaren agiria jasoko du, sistemaren arduradunak salaketa jasotzen duenetik gehienez zazpi eguneko epearen barruan, salbu eta salatzaileak berariaz beste zerbaite eskatzen badu edo ikerketaren ardura duen organoak uste badu hartu-agiri horrek arriskuan jar dezakeela salatzailearen nortasuna babestea.

Datuen tratamenduari eta ikerketari dagokionez, epea ezingo da izan hiru hilabetetik gorakoa, salaketa jasotzen denetik zenbatzen hasita. Konplexutasun bereziko kasuetan, gehienez beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da epe hori.

Txingudiko Zerbitzuak SAn sexu jazarpenaren eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean prebenitzeko eta jarduteko protokoloaren aplikazio eremuan sartzen diren ekintza eta ez-egiteen gaineko salaketen kasuan, ahal den neurrian, Aholkularitza Konfidentzialak protokolo horretan aurreikusitako epeetan amaitu beharko du kudeaketa prozedura, eta, ezinezkoa bada, arau honetan aurreikusitako epeetan gehienez ere.

i) Datuak ezabatzeko eskubidea

Datuak sartzen direnetik hiru hilabete igaro ondoren edo, konplexutasun bereziko kasuetan, luzatutako epea amaitu ondoren, ezabatu egin beharko da salaketa sistematik, salbu eta helburua Txingudiko Zerbitzuak SAn *Osotasun eskuliburuaren* funtzionamendua agerian uztea bada edo prozesu judizial beretik edo agintari eskudunek egindako ikerketetatik eratortzen badira.

8. TXINGUDIKO ZERBITZUAK SA-REN KANAL ETIKOAREN BIDEZ SALATUTAKO PERTSONAREN ESKUBIDEAK

Salaketaren bizi zikloan, Txingudiko Zerbitzuak SAK eskubide hauek bermatuko dizkio salatuari:

a) Errugabetasun presuntziorako eskubidea, ohorerako eskubidea eta defentsa eskubidea

Sistemaren arduradunak eta, kasuaren arabera, Betearazpen eta Osotasun Organoa osatzen duten gainerako pertsonak eta aditu gisa ikerketa prozesuan parte hartzen duen pertsona orok salatutako pertsonaren errugabetasun presuntzioa errespetatu beharko dute erruduntasuna aitortzen ez den bitartean, eta, era berean, bermatu beharko dute errespetatzen direla haren defentsa eskubideak.

b) Ikerketan zehar babesa izateko eskubidea

Sistemaren arduradunak erabat bermatuko dizkio eskubideak salatuari, baita beste zernahi enplegaturi ere, eta ez da aplikatuko neurri zehatzailerik edo legalik, harik eta salatutako egitateak egiazkoak direla egiaztatzen den arte, kasuan kasuko ebidentziak biltzen diren arte, eta frogatu arte gertatu dela delitu egitate bat, arau hauste administratibo astun edo oso astun bat, edo Txingudiko Zerbitzuak Saren *Osotasun eskuliburuaren* eta hura osatzen duten printzipio, kode, politika, arau, protokolo eta abarren aurkako ekintza edota omisioren bat.

c) Informazioa jasotzeko eskubidea

Salatutako pertsonari ikerketa prozesuaren berri eman behar zaio: jokabide horiek egozten zaizkionean, defentsa eskubidea baliatu ahal izan dezan eta errugabea dela egiaztatzeko aukera ematen dion guztia alega dezan.

Bestalde, ikerketa prozesuaren informazioak arrisku handia sortzen badu modu eraginkorrean ikertzeko gaitasunean, salatutako pertsonari jakinaraztea atzeratu egin daiteke arrisku hori hor dagoen bitartean. Helburua da salatutako pertsonak ebidentziak suntsitu edo aldatu ditzan saihestea.

d) Konfidentziasunerako eskubidea

Salatutako pertsonari, salaketa ikertzeko aldi osoan zehar, bere datu pertsonalen konfidentziasunerako eskubidea bermatuko zaio, ez dadin zabaldu haren ohorean eragina izan dezakeen ezein informazio.

Salatutako pertsonari emandako informazioa salatzailearen konfidentziasuna babesteko moduko baldintzetan eman behar da, eta haren berariazko baimenik gabe ezin izango zaio haren nortasuna jakinarazi salaketak jaso eta kudeatzeko edo ikertzeko gaitasunik ez duen inori; salbuespen izango dira EBko zuzenbideak edo Espainiako araudiak ezartzen dituen kasuak, agintariak egindako ikerketekin edo prozesu judizialekin loturik.

e) Ikerketa gardena izateko eskubidea

Salatutako pertsonak jasotako ebidentzien analisi objektiboan oinarritutako ikerketa bat egiteko eskubidea izango du, eta ikerketa eraginkorra eta gardena bermatu beharko zaio.

9. SALAKETAK KUDEATZEKO PROZEDURA

Sistemaren arduradunak, Kanal Etikoaren organo arduradun gisa, txinzer.canaletico.app softwarearen bidez zehazten den prozeduraren arabera kudeatuko ditu salaketak.

Kanal Etikoaren kudeaketa eta izapidetzea esleituta daukan Betearazpen eta Osotasun Organoko sistemaren arduraduna zuzenean salaketaren eraginpean badago, softwareak beste bi pertsona fisiko identifikatzea ahalbidetuko du —ordezko gisa—, salaketa zehatz hori kudeatzeko eta izapidetzeko. Hala, edozein interes gatazka eta bateraezintasun saihestuko da eta organo arduradunaren objektibotasuna eta independentzia bermatuko dira.

Betearazpen eta Osotasun Organoko kideek edo balizko interes gatazkagatiko salaketa kudeatzeko eta izapidetzeko prozeduratik baztertutako hirugarrenek erabat debekatuta edukiko dute salatzailearen nortasunari eta abian den ikerketa prozesuari buruzko zernahi informazio eskuratzea, zuzenean zein zeharka.

9.1 SALAKETAK AURKEZTEKO ETA JASOTZEKO MODUA

Salaketa modu anonimoan egin daiteke. Salatzailearen eta eragindako gainerako pertsonen identitatea isilpekoa izango da, eta arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 33. artikuluan aurreikusitako baldintzetan gordeko da, edo hura ordeztzen duten xedapenetan aurreikusitakoaren arabera, bestela.

Salaketa idatziz egin ahal izango da, jarraian zehazten den posta arruntaren bidez, edo txinzer.canaletico.app bidez. Era berean, ahots mezularitzako sistemaren bidez ere egin ahalko da, 943 639 279 telefono zenbakira deituta, baita txinzer.canaletico.app aplikazioan gaitutako erremintan ere. Azkenik, sistemaren arduradunarekin hitz eginda ere ipini ahalko da salaketa.

Salatzaileak salaketa posta idatziz aurkeztea erabakitzen badu, Txingudiko Zerbitzuak Saren KANAL ETIKORA – BETEARAZPEN ETA OSOTASUN ORGANORA jo beharko du (Olaberria auzoa 18, 20303 Irun, Gipuzkoa). Gutun azal itxiaren kanpoko bi aldeetan, argi eta garbi zehaztu beharko du KONFIDENTZIALA hitza.

Txingudiko Zerbitzuak Saren Kanal Etikoaren bidez salaketak aurkezteko lehentasunezko modua idatziz izango da txinzer.canaletico.app aplikazioaren bidez,

zeinetara erakundearen webgunearen hasierako orrian dagoen estekatik sartu ahal izango baita (www.txinzer.eus). Modurik seguruenean diseinatu, ezarri eta kudeatutako bitarteko bat da aplikazio hori.

Salatzaileak hala eskatuz gero, aurrez aurreko bilera baten bidez ere aurkeztu ahal izango da, eskatu eta gehienez ere zazpi eguneko epean. Ahozko komunikazioaren kasuetan, ohartaraziko da komunikazioa grabatu egingo dela, eta datuen tratamenduaren berri emango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

Ahozko komunikazioaren kasuan —aurrez aurreko bileraren bidez edo ahots mezularitzako sistemaren bidez egindakoak barne—, sistemaren arduradunak modu hauetakoren batean dokumentatu beharko du:

a) elkarrizketa formatu seguru, iraunkor eta irisgarri batean grabatuta eta datuen tratamenduaren berri emanda, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera; edo

b) hura tratatzeko ardura duten langileek egindako elkarrizketaren transkripzio oso eta zehatz baten bidez, salatzailearen sinadurarekin.

Datuen babesari buruzko araudiaren arabera dagozkion eskubideak alde batera utzi gabe, salatzaileari aukera emango zaio mezuaren transkripzioa bere sinaduraren bidez egiaztatzeko, zuzentzeko eta onartzeko.

Jasotzen diren salaketa guztiei alta emango zaie eta sistemaren arduradunak kudeatuko ditu bere bizi zikloa amaitu arte, horretarako prestatutako software espezifikoren bidez (txinzer.canaletico.app).

Salaketa aurkeztean, salatzaileak helbide, posta elektroniko edo toki seguru bat adierazi ahal izango du jakinarazpenak jasotzeko. Halaber, espresuki uko egin ahal izango dio Kanal Etikoaren organo arduradunak edo salaketaren ondorioz ikerketa agindu zaien espezialistek gauzatutako edozein jarduketaren gaineko jakinarazpenak jasotzeari.

Salatzaileak bere salaketa modu anonimoan aurkeztu nahi badu, txinzer.canaletico.app bidez egitea gomendatzen da; izan ere, hark salatzaile anonimoarekin komunikatzen du, betiere salaketaren jarraipena aplikazioan bertan egiten badu.

Salaketa aurkeztu ondoren, Txingudiko Zerbitzuak Saren Kanal Etikoan erregistratuko da, eta erregistro zenbakia eta data emango zaizkio. Kanal Etikoa sarbide mugatua duen datu base seguru batean egongo da: sistemaren arduradunak eta, kasuaren arabera, Betearazpen eta Osotasun Organoko gainerako kideek eta arau honetan aurreikusitakoaren arabera espediente zehatzetarako berariaz baimentzen diren

pertsonen eskuratu ahalko dute (espezialista ikertzaileak edo sexu jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta aurre egiteko protokoloan aurreikusitako Aholkularitza Konfidentzialeko kideak). Datu base horretan erregistratuko dira jasotako salaketa guztiak, eta informazio hau bete beharko da gutxienez:

- a) Jasotze data.
- b) Identifikazio zenbakia.
- c) Egindako jarduerak.
- d) Hartutako neurriak.
- e) Itxiera data.

Salaketa jaso eta gehienez ere zazpi egun balioduneko epean emango da salaketa jaso izanaren berri, salbu eta salatzaileak berariaz uko egin badio ikerketari buruzko komunikazioak jasotzeari, ezinezkoa bada identifikaziorik ezagatik edo horretarako izendatutako bitartekorik ez dagoelako; era berean, ez da jaso izanaren berri emango, sistemaren arduradunak irizten badio salaketa jaso izanaren agiriak arriskuan jarriko lukeela salatzailearen nortasuna babestea.

Kanpoko komunikazio kanalak

Arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen aplikazio eremu materialean (2. artikulua) bilduriko egiteen edo ez-egiteen kasuan, salatzaileak salaketa aurkeztu ahal izango du Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentean edo, horren aurretik, kasuan kasuko agintari edo organo autonomikoetan, aipatutako legean adierazitako baldintzetan.

Era berean, informatzaileak agintari eskudunengana jo ahal izango du bere jakinarazpenaren aholkularitza, laguntza edo izapidea jasotzeko, eta barneko salaketa kanalerako ezarritako berme berberak jasoko ditu, betiere aurretik izendatutako legean jasotako xedapenak errespetatzen badira.

9.2 ONARPEN IZAPIDEA

Salaketa erregistratu ondoren, sistemaren arduradunak egiaztatu beharko du ea azaltzen ote dituen arau honen 3. apartatuan aurreikusitako aplikazio eremu materialaren barruan dauden gertaerak edo jokabideak.

Aurretiazko azterketa hori egin ondoren, sistemaren arduradunak honako hau erabakiko du, gehienez ere hamar egun balioduneko epean, salaketa erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita:

- a) Salaketa ez onartzea, honako kasu hauetakoren batean:

- 1.- Kontatutako egitateek inolako egiantzik ez dutenean.
- 2.- Azaldutako egitateak ez direnean ordenamendu juridikoaren edo *Osotasun eskuliburua* osatzen duten printzipio, politika, arau, protokolo eta abarren arau haustek.
- 3.- Salaketak argi eta garbi funtsik ez duenean edo, sistemaren arduradunaren ustez, delitu baten bidez lortu izanaren arrazoizko zantzuak ageri direnean. Azken kasu horretan, ez onartzeaz gainera, delitutzat jotzen diren egitateen zerrenda igorriko zaio Fiskaltzari, horretarako dagozkion inguruabarrak azalduta.
- 4.- Salaketak ez duenean arau hauste edo ez-betetzei buruzko informazio berri eta esanguratsurik aurreko salaketa batekin alderatuta, edo salaketa horri dagozkion prozedurak amaitu direnean, nola eta ez den bestelako jarraipena justifikatzen duen egitezko edo zuzenbideko inguruabar berririk. Kasu horietan, sistemaren arduradunak arrazoituta jakinaraziko du ebazpena.

Ez-onartzea hurrengo bost egun baliodunen barruan jakinaraziko zaio informatzaileari, nola eta salatzaileak ez dion berariaz uko egiten ikerketari buruzko komunikazioak jasotzeari, nola eta ezinezkoa den identifikaziorik ez dagoelako edo ez dagoelako horretarako izendatutako bitartekorik, edo sistemaren arduradunak arrazoizkotzat jotzen badu salaketa jaso izanaren agiriak arriskuan jarriko lukeela salatzailearen nortasuna babestea.

b) Salaketa izapidetzeko onartzea.

Izapidetzeko onartu izana hurrengo bost egun balioduneko epean jakinaraziko zaio salatzaileari, nola eta salatzaileak ez dion berariaz uko egiten ikerketari buruzko komunikazioak jasotzeari, nola eta ezinezkoa den identifikaziorik ez dagoelako edo ez dagoelako horretarako izendatutako bitartekorik, edo sistemaren arduradunak arrazoizkotzat jotzen badu salaketa jaso izanaren agiriak arriskuan jarriko lukeela salatzailearen nortasuna babestea.

c) Informazioa berehala bidaltzea Fiskaltzari, egitateak zantzuen arabera delitu izan daitezkeenean —edo Europako Fiskaltzari, baldin eta egitateek Europar Batasunaren finantza interesei eragiten badiete—.

d) Salaketa izapidetzeko eskuduntzat jotzen den agintari, erakunde edo organismoari bidaltzea.

9.3 INSTRUKZIOA

Instrukzioak barnean hartuko ditu kontatutako egitateen egiazkotasuna egiaztatzen bideratutako jarduketak guztiak.

Bermatuko da salaketaren eraginpean dagoen pertsonak jasotzen duela salaketaren berri, eta bermatuko da gertakarien berri modu laburtuan izatea ere. Horretaz gainera, alegazioak idatziz aurkezteko duen eskubidearen eta datu pertsonalen tratamenduaren berri emango zaio. Hala ere, entzunaldiaren izapidean eman ahal izango da informazio hori, baldin eta uste bada lehenago aurkezteak frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea erraztu dezakeela.

Ukitutako subjektuei ez zaie inola ere jakinaraziko salatzailearen nortasuna, eta ez zaie emango salaketa eskuratzeko biderik. Instrukzioan zehar, salaketaren berri emango zaio ikertuari, gertakarien zerrenda laburtuarekin. Informazio hori entzunaldiaren izapidean eman ahal izango da, baldin eta uste bada informazio hori lehenago aurkezteak frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea erraztu dezakeela.

Alegazioak idatziz egiteko eskubidearen kalte gabe, instrukzioak barnean hartuko du, ahal den guztietan, elkarriketa bat eragindako pertsonarekin. Elkarriketa horretan, egitateen bere bertsioa azaltzeko eta egokitzeak jotzen dituen frogabideak aurkezteko gonbita egingo zaio, betiere errugabetasun presuntzioa erabat errespetatuz.

Eragindako pertsonaren defentsa eskubidea bermatze aldera, pertsona horrek espedientean sartzeko aukera izango du, salatzailea identifika dezakeen informaziorik eman gabe; noiznahi entzun ahal izango zaio, eta ohartaraziko zaio abokatuaren laguntzarekin agertzeko aukera duela.

Sistemaren edo Betearazpen eta Osotasun Organoaren arduradunak, bere ekimenez edo ikerketa taldearen ekimenez (izendatuta badago), beharrezko kautela neurri guztiak eskatu ahal izango dizkio horretarako eskumenak dituen organoari.

Salaketa izapidetzeko onartu ondoren, salaketak eragiten dion gaiaren arabera, sistemaren arduraduna edo Betearazpen eta Osotasun Organoa harremanetan jarriko da kanpoko espezialistekin, eta izendatu egingo ditu. Hala, aditu horiek arduratuko dira ikerketa faseaz, zeinean ez baitute parte hartuko sistemaren arduradunak eta Betearazpen eta Osotasun Organoak, nola eta ez den ikerketa taldeari laguntzeko, beren lana ondo egiten dezaten.

Ikerketa fasea amaitu ondoren, ikerketa taldeak uste badu salaketa bidezkoa dela, Betearazpen eta Osotasun Organoak haiekin batera parte hartuko du hartu beharreko neurrien proposamena zehazten, zeina ondorioen txostenean jaso beharko baita.

Txingudiko Zerbitzuak SAn sexu jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horiei aurre egiteko protokoloaren aplikazio eremuaren barruan sartzen diren ekintzen eta ez-egiteen kasuan, salaketa onartu ondoren, sistemaren arduradunak Aholkularitza Konfidentzialeko kideak gaituko ditu Kanal Etikoa

kudeatzeko softwarean, kasuaren arabera dagokion espediente zehatzean, haren bidez iker daitezten eta salaketa ikertzeko faseak eskatzen dituen erabaki guztiak har ditzaten, harik eta prozedura amaitu arte. Horretarako, Betearazpen eta Osotasun Organoaren laguntza eskatu ahal izango du, hala nahi izanez gero.

Ikerketa taldeak, beharrezkotzat jotzen badu, egitateetan sakontzeko eta erabaki egokia hartzeko informazio osagarria biltzeko lanak abiaraziko ditu, guztia ere erabakia objektiboki eta bildutako ebidentzietan oinarrituta hartzeko. Ikerketa ekintzek honako hauek jaso ditzakete:

- Salatzaileari ebidentzia eta/edo frogak berriak eskatzea, ikerketa prozesua hobetzeko.
- Elkarriketak hitzartzea inplikaturako pertsonekin.
- Inplikaturak Txingudiko Zerbitzuak SAren duten harreman profesionalari buruzko informazio guztia berrikustea, betiere datuak babesteko legeak eta inplikaturaren pribatutasuna errespetatuz.
- Kanpoko aditu independente batek auzitegi azterketa egitea.
- Ikerketa prozesuarekin jarraitzeko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein ekintza, Datuen Babesari buruz indarrean dagoen araudia errespetatuz.

Ikerketak barnean hartu ditu eskura dagoen dokumentazioaren analisi objektiboa, ebidentziak lortzea, frogak biltzea eta horiek aztertzea.

Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztiak beharturik daude lankidetzan aritzera Betearazpen eta Osotasun Organoarekin eta ikerketaren ardura hartzen duten espezialistekin (eta, kasuaren arabera, Aholkularitza Konfidentzialeko kideekin), eta nahitaez eman beharko dute ahalik eta laguntza handiena ordenamendu juridikoa haustea edo Txingudiko Zerbitzuak SAren *Osotasun eskuliburua* ez betetzea ekar dezakeen edozein gertaera ikertzeko. Obligazio hori betetzeko, aurrekoek eskatzen dieten edozein informazio eta azalpen eman beharko dute pertsona horiek.

Txingudiko Zerbitzuak SAko kideek barne ikerketari uko egiteak, oztopoak jartzeak edo laguntzarik ez emateak diziplina espediente bat edo bestelakoren bat irekitzea ekar dezake, enpresa hitzarmenaren eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren eta legeriaren arabera.

Sistemaren arduradunak, Betearazpen eta Osotasun Organoak, ikerketaren ardura hartzen duten espezialistek eta, kasuaren arabera, Aholkularitza Konfidentzialeko kideek isilpean gorde beharko dituzte salaketak kudeatzeko prozeduren esparruko eginkizunetan zehar eskuratzen dituzten informazioak.

9.4 JARDUKETEN AMAIERA

Instrukzio eta ikerketa jarduera guztiak amaitu ondoren, ikerketa taldeak, Betearazpen eta Osotasun Organoarekin batera, ondorioen txosten bat egingo du. Txosten horretan, ikerketa fase osoaren emaitza ez ezik, beste zenbait alderdi ere jasoko dira.

- Alderdi teknikoak: Izenburua, egilea, data, helburua, konfidentzialtasun maila (nork duen sarbidea).
- Espedientearen aurrekariak: Ikertu beharreko komunikazioa eragin zuten gertakariak, ikerturiko pertsonak edo sailak.
- Ikerketaren xedea eta helburua.
- Jarduketak, ikertutako eta antzemandako gertaera garrantzitsuak, aztertutako ebidentziak eta frogak.
- Ondorio zehatzak, ikerketaren helburuan eta irismenean oinarrituta.
- Salaketa bidezkotzat edo bidegabetzat jotzea.
- Neurri zuzentzaileak, zehatzaileak edo diziplinazkoak proposatzea, baita gomendioak edo komenigarritzat jotzen diren erabakiak ere. Nolanahi ere, Txingudiko Zerbitzuak SAn Hitzarmen Kolektiboaren, lan legediaren eta Txingudiko Zerbitzuak SAko kideak entitatearekin hartutako gainerako betebeharrak zibil eta komertzialen arabera aplikatuko da zehapen araubidea, delituak egitearen ondoriozko erantzukizun penalak alde batera utzi gabe. Kasu horretan, Betearazpen eta Osotasun Organoak, kasuak hala eskatzen badu, jakinaren gainean ipini beharko ditu salatzailea eta, bereziki, salatua —sistemaren arduradunaren bidez—, defentsarako aukera eskaintzeko.

Salaketa bidegabetzat jotzen bada jakinarazitako egitateen ikerketatik ondorioztatzen delako ez dela ageri ez-betetzerik, espedientea artxibatzea erabakiko da, eta, kasuaren arabera, Betearazpen eta Osotasun Organoak jakinaren gainean ipini beharko ditu salatzailea eta, bereziki, salatua —sistemaren arduradunaren bidez—, erabakia funtsatzen duten arrazoiekin batera.

Salaketa bidezkotzat jotzen bada salatutako egitateak egiazkoak direla frogatzen delako, ondorio horren oinarri diren ekintzak zehaztu beharko dira.

Txostenak argi eta zehatz jasoko ditu ondorio horiek. Gainera, ikerketan zehar mugarik izango balitz, txostenean jaso behar da.

Ondorioen txostena zuzendari gerenteari edo Administrazio Kontseiluari helaraziko zaio —segun eta nork duen bertan proposatutako neurriak hartzeko eskumena—, eta egokiro prebenitu beharko da beti interes gatazkaren arriskua.

Betearazpen eta Osotasun Organoak monitorizatu beharko du betetzen direla proposatutako neurriak, eta, kasu guztietan ere, aurkeztutako salaketen, kalifikazioen eta ondorioen txostenetan proposatutako neurrien betetze-mailaren berri eman

beharko dio Administrazio Kontseiluari, Betetze eta Osotasunari buruzko Urteko Memorian.

Jarduketak amaitzeko eta salatzaileari erantzuteko epea, halakorik denean, ezingo da izan hiru hilabetetik gorakoa salaketa erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita, epea luzatzea eskatzen duten konplexutasun bereziko kasuetan izan ezik —halakoetan, gehienez beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da epea—.

10. ERRUKITASUN PROGRAMA

Txingudiko Zerbitzuak SAK, araudia betetzen dela zaintzeko lanean, erruki programa bat sustatu nahi du, erakundeak legearen eta/edo printzipio, jokabide, politika, arau, protokolo eta abarren aurkako jarduerak edo jarrerak hautematen laguntzeko, Txingudiko Zerbitzuak SAren *Osotasun eskuliburuaren* barruan; haren bitartez, betetze kulturarekiko konpromiso gorena sendotzea eta egiaztatzea lortu nahi du gainbegirale, erregulatzailer eta agintari judizialen aurrean.

Programa hori Txingudiko Zerbitzuak SAKo kide guztiei eta arau hausteen, ez-betetzeen eta abarren erantzule edo jakitun diren hirugarrenei (pertsona fisiko edo juridikoak) dago zuzendurik.

Txingudiko Zerbitzuak SAKo kide batek edo hirugarren batek erantzukizunen bat duen iraganeko, egungo edo balizko ez-zilegi, arau-hauste, ez-betetze eta abarren bat egin izana salatzen badu, eta haren jardunak ondorio penalik ez badakar, eta, Betearazpen eta Osotasun Organoaren iritziz, froga eraginkorrak eman baditzake —hasieran edo instrukzioaren edozer unetan— ikerketan laguntzeko edo beste zenbait auzi zehazteko, hala nola erakundeko kideen edo hirugarrenen inplikazioa, legez kontrakoaren norainokoa, Txingudiko Zerbitzuak SAKo kaltea edo arau hausleentzako onura eta egindako arau haustearen iraupena.

Pizgarri horiek, oro har, ez zaizkie aplikatuko Administrazio Kontseiluko kideei, zuzendari gerenteari eta arloko arduradunei.

11. KONTSERBAZIOA, SEGURTASUNA ETA ESTATISTIKA

Kanal Etikoa kudeatzeko softwarea datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legediaren arabera diseinatu, ezarri eta kudeatzen da, eta salaketa ezabatu egiten da aplikazioaren ageriko zatitik, artxibatzen den unean.

Salaketak Madrilen (Espainia) dagoen datu base batean gordetzen dira. Datu base hori erabat enkriptatuta dago eta inork ezin du eskuratu, eta baditu informazioaren segurtasunari buruzko ziurtagiriak (ISO 27001 eta ENS).

Zehatz-mehatz xehatutako kasuetan soilik sar daiteke datu base horretara (adibidez, auditoretza batean). Hala ere, salaketa guztiak estatistika helburuetarako behar den gutxieneko informazioarekin gordetzen dira, espedienteko datu pertsonal guztiak ezabatu ondoren.

12. DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Txingudiko Zerbitzuak SAren Kanal Etikoa datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legediaren arabera diseinatu eta ezarriko da, eta, bereziki, arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 29. artikulutik 34. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera.

Kanalaren xede diren kontsultak eta salaketak kudeatzeko prozesuan jasotako datu pertsonalak Txingudiko Zerbitzuak SAk tratatuko ditu. Datu horiek identifikazio datuak izango dira (izen-abizenak, helbide elektronikoa, nortasun agiria eta harremanetarako telefonoa), bai eta informatzaileak komunikazioaren kudeaketari eman beharrekoztatzotzen duen edozein datu ere.

Datuak tratatzearen helburua da Kanal Etikoaren bidez jasotako komunikazioak kudeatzea. Horren barruan sartzen dira komunikazio horiek jasotzea, ondorengo azterketa eta instrukzioa egitea eta aplikatu beharreko neurri zuzentzaileekin espedienteak ixtea.

Datu pertsonalak legez aurreikusitako epean gordeko dira; epe hori ez da izango hiru hilabetetik gorakoa, nola eta instrukzioa ezin den luzatu beste hiru hilabetez, aldez aurretik justifikatuta. Kudeaketa amaitutakoan, informazio konfidentziala artxibatu egingo da (sartzeko muga), babestutako datu basean enkriptatuta eta segurtasun neurri ziurtatuekin. Hala ere, estatistika ondorioetarako eta jarduketa horiei buruzko urteko txostena edo memoria egiteko, posible da datu pertsonalak anonimizatuta uztea.

Komunikazioa kudeatzeko inolako garrantzirik ez duten datuak berehala ezabatuko dira.

Informazio guztia modu hertsiki konfidentzian tratatuko da, eta ez zaie daturik lagako hirugarrenei, salbu eta legezko betebeharragatik edo errekerimendu juridikoagatik bada edo datuen titularraren aldez aurreko baimena eskuratzen bada; era berean, agintari eskudunei eman ahalko zaizkie —hala nola epaile eta auzitegiei edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei—, baldin eta jakinarazitako informazioan delitu esplizitua egiten bada eta kudeaketak hala eskatzen badu.

Era berean, ez dira aurreikusten bildutako datuen nazioarteko transferentziak.

Informatzaileak datuak babesteko eskubideak baliatu ahal izango ditu Kanalekoari dagokionez; horretarako, Txingudiko Zerbitzuak SAko Datuak Babesteko ordezkariari eskaera egin beharko dio, helbide honetan: dpd@pers.eus.

13. ARAUA INDARREAN JARTZEA, INDARRALDIA ETA EGUNERATZEA

Dokumentu hau Txingudiko Zerbitzuak SAko Administrazio Kontseiluak onartu du 2023ko maiatzaren 30ean, eta berehala hartuko du indarra. Hala, indarrean jarraituko du harik eta inolako aldaketarik egiten ez den arte. Nolanahi ere, Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztiei zabaldu beharko zaie *Osotasun eskuliburua*.

Administrazio Kontseiluak onartuko ditu Kanalekoari eta Salaketak Kudeatzeko Prozedura arautzen dituen arau honetan egiten diren aldaketak, Betearazpen eta Osotasun Organoak proposatu ondoren, eta Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsona guztiei bitarteko telematikoen bidez jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera aplikatuko dira.

Aldaketek ordura arte indarrean zegoen dokumentua aldatzea badakarte, Txingudiko Zerbitzuak SA osatzen duten pertsonen prestakuntza eman beharko zaie haien gainean.